



NAFARROAKO HERRIARTEKOA ERABAKITZEAR

Bihar, Uharten, jakingo da Leitza finalera pasako den; pasa den urteko pilota txapelketan Leitza izan zen garailea > 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-06-24

VIURTEA 1.468.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



San Joan jaietako batel estropaden sailkapen probak izan ziren herenegun Oria ibaian. Jende ugari izan zen proba ikusten. Gaur izango dira finalak. ANDER OTEZABAL

EGUN HANDIENAREN ATARIAN

SAN JOAN JIAIK San Joan suaren aurretik ekitaldi ugari izan ziren atzo, Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan 4-5

Udalak hiru euro emango dizkio biztanleko eskualdeko egunkariari

ZIZURKIL Atzo sinatu zuten akordioaren arabera, 8.370 euro emango dizkio 2

TOMAS PLAZAOLA ORENDAINGO ALKATEA

«Etxe kooperatiban eraikitzen dute, denak partaide direlarik»

ORENDAIN Konbentua dagoen lekuan egingo dituzte etxebizitzak; Jauregik kudeatuko du 3



N.U.

Thermotechnic Torneoa tanto bakarrarengatik galdu du Altunak

AMEZKETA Urrutia-Lizasok 40-39 irabazi zieten Altunall.a-Etxaberi 6

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Harpidedunentzat
%25
merkeago

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

zuri arrain

iturgintza & bainugelak



Jon Mujika eta Marian Lazkano, hitzarmena sinatzerakoan. I. GARCIA

Zizurkilgo Udalak biztanleko hiru euro emango dizkio HITZAri lau urteetan

Zizurkil » Legealdi honetarako sinatu dute hitzarmena eta 2008an 8.370 euro emango dizkio Udalak egunkariari.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak hitzarmena berri dute. Udalak hiru euro emango dizkio biztanleko legealdi honetan, hau da, 2008tik 2011 urterera arte.

Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak eta Jon Mujika HITZAren kudeatzaileak sinatu zuten hitzarmena atzo goizean. Akordio honen arabera, Udalak 8.370 euroko diru laguntza emango dio aurten eskualdeko egunkariari.

Zizurkilgo alkateak azaldu duenez, «HITZA euskaraz ateratzen den egunkarietako bat da eta leku

askotan zabaltzen da. Hori bultzatu nahi dugu Udaletik». Bere alde, Jon Mujikak «oso positiboki» baloratu zuen Zizurkilgo Udalak emandako laguntza. «Lau urtererako hitzarmena sinatu dugu eta hori oso garrantzitsua da guretzat, aurrera begira ekonomikoki segurtasuna suposatzen duelako».

Akordioaren puntu batean zehazten denez, «Zizurkilgo Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan. Horrela, egunkariak Udalaren eta herritarren arteko zubi izan nahi du, eta Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratuko ditu. Egunkaria informazioaren aniztasunarekin eta orekan oinarrituko da».

Harpidetzak

Ohiko diru laguntzaz gain, aurten Udalak beste diru kopuru bat bideratuko du egunkariari bultzeko. Hala, 270 bideratuko ditu HITZA-

ren harpidetza sustatzera. Aurretik azaldukoaren ildotik, euskarazko egunkaria ahal den leku gehienetan irakur dadin bultzatu nahi dela Udaletik esan du alkateak. Horrela, taberna, jatetxe eta ko-

Udalak 270 euroko laguntza eman du, herrian harpidetza bultzatzeko

mertzioetara bideratu dira harpidetza horiek.

Mujikak zehaztu duenez, guztira ditu kopuru horiekin 30 harpidetza inguru bideratu dira eta ildo honetan Zizurkilgo Udalak emandako laguntza eskertzen du. «Espero dugu orain harpidetza doan jasoko duten taberna, jatetxe eta komertzio horiek, datorren urtean harpidetza berriko dutela», azaldu du HITZAko kudeatzaileak.

Udalak ekuadortarrekin elkartrukea berriro du

ERREDAKZIOA

Ekuadortarrek Zizurkilera elkartruke hamabostaldia burutu berri da herrian eta Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea azaldu duenez, aurrera begira ere ekimena egiteko asmoa azaldu du bai Udalak berak bai eskualdean dagoen ekuadortarren komunitateak.

Antolaketak «oso ilusionatuta» egin dituztela azaldu du Lazkano. «Beste hainbat ekimentera bezala, ekitaldietara jende gaehiago etortzea nahiko genuke eta horretan ere ahalginduko gara hurrengo edizioetan».



Elkartrukean egindako janari dastaketaren une bat. I. GARCIA

2007ko kontu orokorra onartuko du udalbatzak

Aduna » Osoko bilkura egingo dute udaletxean gaur, 20:00etan; herritarrek gonbidatzen dituzte parte hartzera.

ERREDAKZIOA

Adunako Udalbatzak oso bilkura egingo du gaur, 20:00etan, udaletxean. Bertan, honako gai hauek aztertuko dira: aurreko plenoetako akten onarpena; egondako dekretuak; TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN hitzarmena sinatzea; 2007ko kontu orokorra onartzea; 2008ko urtarrilaren lehen erroldatutako biztanleen kopurua; obra baimenak; Eusko Jaurlaritzak eskatua eskola zabalteko; Ingurumen Zerbitzuei buruzko enpresa bat kontratatzea; udaletxerako aukiak eta mahaiaik erostea; mozioak: *Palestina* eta

Euskal Herrian demokrazia 0; diru laguntzak eta fakturak eta galderantzunak.

Udaletik azaltzen dutenez, osoko bilkura irekia da eta edonor joan daiteke bertara.

Bestalde, Udalak jakinarazten du maiatzaren 27ko osoko bilkuran Erriberako plan partzialari hasierako onarpena eman zitzaioela, Eusko Jaurlaritzak Agamundo eta Aizpea baserrietako babes distantziei buruz bidalitako idatziak aztertzeke konpromisoarekin. Horrela, plan partzial horren aurka edonork alegazioak jarri ditzake uztailearen 7a baino lehen.

Udalak ere gogorazti nahi du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN hitzarmen bat sinatu ostean, egunkaria jasotzeko aukeratu dela herritarrok doan abendurarte. Herrian zehar banatuta dauden buzoietatik edo zenbait ogi banatzaileetatik jaso daiteke.

Villabonan ziklomotorren IAT egiteko aukera

ERREDAKZIOA

Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren (IAT) unitate mugikor bat izango da Villabonan gaur, bihar eta etzi hiru urte baino gehiagoko ziklomotorren derrigorrezko azterketa egitera. Interesatuak ordua eskatu beharko dute Villabonako udaltzaingora deituz, 943 69 39 80 zenbakira, 09:00etatik 14:00ak bitartean.

Azterketara ziklomotorra eta haren dokumentazio originala eraman beharko dira, eta 22 euro-tako tasa ordaindu beharko da bertan.

Bestalde, Udaltzaingoa jakinarazi du hilaren 30etik aurrera baldintza teknikoak bete gabe edo/eta derrigorrezko aseguruak kontratatu gabe dabilzan ibilgailuak detektatzera bideratutako kontrolak egiten hasiko dela.

Baldintza teknikoak betetzen ez dituzten edo/eta aseguruak ez duten ibilgailuak, edo ibilgailuen azterketa teknikoak pasa gabe dutenak, salatu egingo dira eta hala badagokio ibilgaitu, ondoren IAT estazio finoren batetara eraman beharko direlarik dagokion azterketa egiteko.

**ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR**



**PIGOLA
ERAIKVNTZAK, S.L.**

Izaskun Bidea, 7 behea
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80 **20400 TOLOSA**

ZERBITZU BULEGOA

A I X A

**Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak**

**Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA**
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuartz@euskalnet.net

E Elkarrizketa

TOMAS PLAZAOLA » Orendaingo alkatea

«Etxe kooperatiban eraikitzen dute, eta denak dira partaide»

Orendain » Orendaingo konbentua dagoen lekuan egingo dituzte etxebizitzak eta Jauregi etxe kooperatiba arduratuko da kudeaketaz.

ERREDAKZIOA

Orendainen etxebizitzak egiteko garaian etxe kooperatiba osatu dute. Jauregi. Hori zer den eta bere lana eta funtzioa zein den jakiteko Tomas Plazaola Orendaingo alkateak (Legorreta, 1953) argibideak eman ditu.

Zer da etxe kooperatiba?

Labur esanda, pertsona talde batek erabakitzen du etxe bat eraikitzea eta denak partaide dira. Hau oso zaila da, ez bada norbaitek bere gain kudeaketa hartzen duela. Orendaingo kasuan, Arrasate inbiliaria bere gain hartu du lan hori. Horretarako Jauregi alde kooperatiba sortu du.

Nola da honen funtzionamendua?

Kooperatibak kreditu bat lortu du eraikina bideratzeko: gure kasuan 17 bizitza eraikitzeko. Dagoeneko lurzorua ordainduta dago. Beraz, 17 kooperatibista behar dira eraikina osatzeko. Sozio sartzen den heinean Arrasate inbiliaria kanporatzen doa, eta 17 partaide osatzen denean, bere lanak gestioakoz izango dira, eta bere lan saria kobratuko du.

Nola dago momentuan Jauregi kooperatiba?

44 lagunek izena eman zuten eta orain 6 kooperatibista daude eta erretore batzordea osatu da. Jende asko lortu dute beste leku batean etxea, eta beste batzuk dudan

daude: agian mezua behar den bezala ez delako azaldu, gaizki uler-tze bat izan da.

Etxebizitzak ez badira saltzen kooperatibistek ordaindu beharko dute besteen hutsuneak?

Berez, horrela izango zen baina Orendaingo kasuan, Udalak erroka horri aurrea egingo dio eta bere gain hartuko ditu etxe horiek eta orduan kooperatibako partaideak berari dagokion zorra bakarrik ordainduko du. Orendaingo Udalak herria gaztetu egin nahi du eta etxeak aurreneko etxebizitza eta gazteentzat izango dira. Behar diren eskaintzak egingo ditu bideratzeko jarritako erroka aurre egiteko.

Zer gertatzen da kooperatiban sartu eta arrazoi ezberdinengatik irten beharrean gertatzen bada?

Jarritako dirua kooperatibista berririk ordainduko dio eta beraz ez zuen galerarik izango. Kasu txarrenean beste ordezkoa sartu artean diru hori ezin izango duela hartu.

Kooperatiban parte hartu nahiko lukeen horrek zer egin beharko luke?

Izena eman eta aukeratuta izan ondoren, 1.000 euro ordaintzen da partaide modura eta etxea bukatu arte ordainketa batzuk egiten dira. Bukatzen denean eta etxea erregistratu behar denean, norberaren izenean jarri, orduan ordaintzen



N.U.

da falta den dirua, hipoteka bidez edo beste era batzuetara.

Zein egoeratan zaudete gaur egun?

Herriko festetarako (abuztuak 15 inguruan) espero dugu lehengo komentua botata izatea eta mar-txan, aurrera prest egiteko. Errektore batzordea osatuta dago, bere onarpena beharko da ordainketak eta kontratistaren adjudikazioa edo esleipena egiteko. Eraikuntzako zuzendaritzak kontuak prestatu ditu eta orduan esleitzeko moduan gaude. Beraz, udaran hasi eta 2010eko udazkenerako bukatuta egotea espero dugu.

Zer motatako etxeak dira?

Pisu nahiko handiak, izan ere herri horietan jendeak hori eskatzen du.

92m karratu erabilgarriak eta denak aurrealdea eta atzealdea dituztenak dira. Beraz, denak orientazio berdinekoak, ez batzuk itzalean eta besteak eguzkitan.

Zein da hauen prezioa?

Hau, pentsatzen dut, askok duten galdera dela. Kostua hau da: kostu errealak gehi kudeaketa lanak gehituta. Hori ere kalkulatu dugu eta %95eko ziurtasun batekin lehengo pezetatan 38 milioi izango litzateke. Diru horren baitan dago: etxebizitza sukaldea ekipaturik, gehi garajea, gehi 8m karratu tras-telekuarenak, gehi %7 BEZA.

Interesatuak norengana jo behar dute?

Orendaingo Udalerari (943 65 40 64) edota Arrasate inbiliariarari deituta (943 79 20 48). Hala, informazio gehiago eskuratu dezakete.

Etzi Amezketan ohiko bilkuran bileretako informazioa emango dute

ERREDAKZIOA

Etzi Amezketan ohiko bilkura egingo dute 20:30ean, udaletxean. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: 2008ko aurrekontuei dagokien 1. zenbakia duten kreditu aldaketa espedienteak; AIU-4 Larraitz-bidearen ondoko eremuko birpartzelazio proiektuaren onarpenak egingo dituzte; AIU-7 Jauregi ondoko eremuko hirigintza arloko hitzarmenaren sinadura onartzea.

2008ko (uztaileko) udaleku irekien antolatetari buruzko erabakiak hartuko dituzte. Ergonen bursaren geltokirako markesina jartzeko laguntza eskatzeko eta inbertsioa gauzatzeko aurrekontua badagoela ziurtatzen duen udal akordioaz ere ariko dira.

Bukatzeko, joan den asteko bileretan esandakoak eta erabakitakoak ezagutzera emango dituzte batzordeak.

Igandean Badaion jubilatuen bazkaria egingo dute Artubin

ERREDAKZIOA

Badaion igandean, jubilatuen bazkaria antolatuta dute. Artubi elkartearen izango da 14:00ak aldera. Aurretik, 13:00etan meza ospatuko du Joxe Agirre apaizak.

Agirre apaizak duela 50 urte eman zuen bere lehen meza eta berarekin ospatuko dute. Musika ere izango da bazkarian.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona bat behar dugu uztailearen 10etik 20ra, udaleku txikiak.

Deitu 628 94 72 53 telefono zenbakira.

■ **Zaintzailea.** Neska-emakume euskalduna behar da, haurrak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udarako. Deitu hauetako telefono zenbakietara: 635 72 20 47 edo 635 71 24 41.

Marcel LEARMINDEGINDO OAK
EDERGINTZA Santa Klara, 9
TOLOSA 943 67 1936

KIKATZA
PINTXOAK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

SEGUROS BILBAO
Zumardi
aholkularitza integrala
San Joan festa zoriotsuak opa dizkizu
Laskorain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

XOILAN, S. L.
Telf.-Faxa: 943 67 06 26
659 04 57 65
Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak
- lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zuruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

MAIXINA Sanjoanak ondo pasa!!
Etxekotresna elektrikoek konponketa
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

Tolosalde Ondo pasa Sanjoanak!
BUS S.L.
Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak
Tel eta faxa: 943 650621 • 619 723 819 • Donostia Etorbi, 9 • TOLOSA

MOTZA BAINA BIZIA

Tolosa » Gaueko San Joan suaren aurretik ekitaldi ugari izan ziren atzokoan ere, urteko egunik luzeenean.

INGO TERRADILLOS

San Joan Berpean San Joan suak hartzen du protagonismoa, baina gauetan Santa Maria plazan suaren inguruan jendea bildu aurretik, ekitaldi bertero eguna izan zen atzokoan ere.

Jubilatuek euren unoa izan zuten gozatu zuten. San Frantzisko Toka Lehiaketan jokatzeko aukera izan behar zuten. Jende ugari bildu zen ekitaldi honetan; ondoren, dotinauk Ertzaiztaren Musika Banda jarri zuen Berdura plazan. Amatsaldiaren ostean, urteko ekitaldiak izan ziren: txistulariek kalejira egin zuten antzinako errolda bidekin, eta bertso jaitaldia ere izan zen Zerkausian. Ohiko den moduan, Udaltzatik Arameleko San Joan kaparako berpeetan eta arrats otolatzen hartu zuen parte. Kiroleanzatek ere izan zuen parte, squash eta herri kirolentzat, hain zuzen. Bestalde, gaztekoentzatek Surtzo Garbia plaza jokatu zuten, Kiki, Kokota Mokoren ikusizuna izan zen.

Atzoko ekitaldi nagusia izan zen San Joan sua, eta urtero bezalaxe, jende ugari bildu zen Santa Maria plazan, eta suaz gain, dantza eta musika ere izan zen. Udaberri dantzari taldea, Tolosako Musika Banda eta Orfeoaren eskutik, Gatuero bezala, musika izan zen nagusi gau partean, eta era askotarikoa, gaitera, Senegalik etorritako doinauk baretik, Kora taldearekin, Iparraldekoak, bestetik, Pier Paul Berrozit abeslariarekin, eta Añha Disko festa azkenik.

Eraldiak, kirola eta musika
Koadrilaren Egunaren ostean, aje-arekin batzuk, lasiago besteak besteekin jarraitu beharra zegoen, hermetikoki ikusizuneko hitziren falta. Xakea, paddela, batelak izan ziren kirolak dagoeneko, barenaz antzerkia ere jolasak, eta zozketaren ostean eraldiak eta buruhandiak irten ziren berriro kalera dultzairenekin. Martiazin doinauk hitzaren eta gauetan izan ziren entzuzangai Alde Zahar osoan, su festan moduan, eta gauetan, berriaz. Desordutuan eta Korbia taldeek kontraria eskalari zuten Plaza Berrian.



Eskerrian, aurtengo herrikuntzetako bat, bertso saloa, altxo Zerkausian. Eskualdean, Surtzo Garbia plaza haserak jolastu; altxo antzerkia ere izan zuten. (1) (2) (3)



Jende ugari bildu zen Triangulo plazan herri kirolak ikusteko. Magretza alta-semeak eta Olasagasti eta Nazabal aritu ziren (hedaak gaitzen aurka) altxorak, eta haerik jasotzen, berri, laza II eta Irigoren. Irudian, erreiziderra altxora saloa ikusten. (1) (2) (3)



Eskerrian, atzoko jubilatuaren arteko Toka Lehiaketako une bat. Eskualdean, herenegun jokatutako XXXV. San Joan Nazioarteko Xake Txapelketa / Enrique Pinedaren Orolmeneko XXXII. Saria. Erreteriariko Fomento taldeak irabazi zuen. Eskualdeko lehen Tolosa-Ibarra A izan zen, seigarren arrailu zuten. (1) (2) (3)



aldama_tapia
ahokularririk
Tel.: 943 65 03 75
Fax: 943 65 52 06
Foruen Etorbidea, 7 - 20400_TOLOSA_Gipuzkoa
gotosa@aldamapapia.com - www.aldamapapia.com

in
argitaratze & igelberrak
irratziak & pibotek
arabak
okarideta & dekoratibak
zuzen & helburu
altzak & salakak
eta gure
VIAJERUEN ETXALDEKO
www.in.com
Sanjoan
onko paxak
Nafarroa, 2008, 12 • Tolosa
Tel.: 943 65 39 49
www.tolosaldeko-hitza.info

@ Zurea da hitza. Eskualdean buruzko albisteak, iritzak, eskerak... sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak zurea da hitza zurea da hitza. Zure datuak sartzea gomendatzen dugu harremanetan jarri behar dugun arteko.
www.tolosaldeko-hitza.info

Gaur batel estropaden final handia izango da

Kirola » 12:00etan hasiko dira probak; tartean, Carlos Peña eta Jose Luis Kortaren arteko desafio berezia izango da ikusgai.



Batel estropaden sailkapen proba jokatutako zuten herenegun. ANTON ETXARZA

LETRADILLOS

San Joan jaietako Batel Estropaden kanporaketak jokatzen zirenean herenegun Oriñ ibaian. Ohiko den moduan jende ugari bildu zen batelaren ikusizun honetara. Zerkausian hitzatu Oriñ ibaiaren inguru guztia jende betea ikusten zelarik. Giroak, beraz, ez zuten hutsik egin hitzordia honetan.

Murtien mailan Gaztelu (Laiar taberna) izan zen denbora onena egin zuten batela. Bere atzetik Boga

(Zumaia), Zebi, SMG-Orma, Anoretako Arraunlariak, Izaskun AKE (66 taberna) sailkatu ziren finalerako.

Nesken mailan, berriaz, Izaskun AKE (66 taberna) izan zen lehenaz; bere atzetik Gure Txakola (Zelai-2), Ibarra (Guzutza-karrozzeria) eta Txingarta (Tolosa 2015) sailkatu ziren.

Eguerdiaren batel festak
12:00etan ikusgai ikusizun polita gozatzeko aukera izango da gaur Zerkausian herenegun. Batel herenegun sailkatu zirenean artean finala jokatuko dute, eta sailkatu ez zirenean artean kontsolazio taula ere izango da, eta bestetik, Carlos Peña eta Jose Luis Kortaren arteko desafioa, 12:45 ordu aldera.



Gaztetxoaren jolasak eta zaldi karrera nagusi

ABALIZIETAKI-BELUNTZA Eskualdekoia herri gehienetan pletu zuten atzo San Joan sua, eta honietatik, Tolosan ezozik, Abaliziak eta Beluntza ere herriko jaiak dira, beraz, egunotan festa giroa da nagusi bertan. Beluntzan umeljo-

sak (ezkerrean goian) eta bokolatada izan zituzten suaren aurretik atzo. Abaliziak, ere jolasen aritu ziren atzo gaztetxoak (ezkerrean behean) eta gausan suaren ostean dantza, zoko karrera eta musika izan zituzten. Herenegun,

hain arrakastatsua izaten den zaldi karrera (eskuinean) egin zuten Ametzetatik, Abaliziak. 13 parte-hartzaile izan ziren, eta Andres Diezok irabazi zuen. Bere atzetik, Saniti Terria eta Jose Mari Artza sartu ziren. (1) (2) (3) (4) (5) (6) (7) (8) (9) (10) (11) (12) (13) (14) (15) (16) (17) (18) (19) (20) (21) (22) (23) (24) (25) (26) (27) (28) (29) (30) (31) (32) (33) (34) (35) (36) (37) (38) (39) (40) (41) (42) (43) (44) (45) (46) (47) (48) (49) (50) (51) (52) (53) (54) (55) (56) (57) (58) (59) (60) (61) (62) (63) (64) (65) (66) (67) (68) (69) (70) (71) (72) (73) (74) (75) (76) (77) (78) (79) (80) (81) (82) (83) (84) (85) (86) (87) (88) (89) (90) (91) (92) (93) (94) (95) (96) (97) (98) (99) (100)

FESTAK ONDO PASA!
TOLARGI
Tolosako argia, zurea.
Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel.: 943 65 00 16 • Fax: 943 65 00 65
Tel.: matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

LASKORAIN IKASTOLA
SANJOANETAN EUSKARAZ
www.laskorainikastola.net
Tel.: 943 697 127
p.elektronikoa: tolosa@kastola.net



Thermotechnic Torneoko lau finalistak: Garikoitz Altuna eta Etxabe urdinez eta Lizaso eta Urrutia gorritz. JOSEBA ZABALZA

Thermotechnic Torneoaren finala tantu bakarrez galdu du Garikoitz Altunak

Erremontea » Urrutia eta Lizasok ezohiko bikotea osatu arren Torneoaren bigarren edizioa irabazi zuten (40-39).

ASIER IMAZ

Thermotechnic Torneoaren finala iragan larunbatean jokatu zen Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Urrutia eta Lizaso bikoteak Altuna II.a eta Etxabe tantu bakarrek aldeaz garaitu zituen, 40-39 hain zuzen ere.

Bigarren edizioa, bi atzelari, bi garaipen

Thermotechnic Torneoaren bigarren edizioa amaitu zen iragan asteburuan. 2007an bezala, Urrutiak eta Lizasok lortu zuten garaipena. Bikote txapeladuna bi atzelarik osatzen dute, izan ere, Torneo honen ezaugarrietako bat hori da; mementoko bi atzelari eta aurrelari onenek elkarren artean bikotea osatzea. Bi aurrelarien bikotea Zerbatio II.ak eta Ezkurak osatu zuten, hauek finalerdietan txapelke-

tatik at gelditu ziren, Urrutia eta Lizasoren aurka 40-39 galdu ostean.

Thermotechnic Tornea jokatu zuten gainontzeko lau bikoteak ohiko moduan osatuak zeuden, hau da, aurrelari eta atzelari batekin. Altuna II.ak eta Etxabek maila handia erakutsi ostean finalerako txartela lortu zuten Uharteko (Nafarroa) Jai Alain Juaristi eta San Miguel 30 tantotan utzi ondoren.

Esku-eskuan garaipena

Garikoitz Altunak eta Etxabek esku-eskura eduki zuten azken unean garaipena. Partida oker hasi zen gipuzkoarrentzat, atzelariak osatzen zuten bikotea indartsu hasi baitzen (6-0).

Hala eta guztiz ere, Altuna II.ak hasierako tantu hauetan aurrelari peto baten nagusitasuna ezartzea lortu zuen. Partida berdindu ostean, 23-26 jarri ziren aurretik. Urrutiak eta Lizasok, batez ere azken honek, saka medio tanto zaparrada lortu zuten jarraian, 32-26 aurretik jarri zirelarik. Hortik aurrera txapela irabazia zutela zirudien, joku onaz gain 39-32 aurkitzen

baitziren. Dena erabakita zegoela zirudienean, Garikoitz Altunak eta Etxabek partida berdintzea lortu zuten (39-39).

2007an bezala, kasu hartan 39nako markagailuarekin Zeberio eta Ezkurra zituzten aurrean, Urrutiak eta Lizasok joku indartsuaz gain zorrea ere alde zutela erakutsi zuten. Azken tanto honean Etxabek ezin izan zuen Urrutiaren pilotakada indartsu bat eraman eta 40-39ko emaitzarekin bi atzelariak Torneoko txapeladun geratu ziren.

«Leon-kastilo izan da partidaren amaiera»

Garikoitz Altuna amezketarra ez zegoen gustura partida amaieran, «gehiago egin» zezakeela uste baitzuten. Amaieran zorrea euren alde ez zela egon ere aipatu zuten: «Partida ia galdua genuen. Baina tantoz tanto joan gara eta txapelak ia eskuan izan ditugu. Ez naiz oso gustura aurkitzen, partidako hainbat fasetan gehiago egin nezakeelako. Hala eta guztiz ere partidu amaiera leon-kastiloa izan da eta zorrea euren alde egon da».

Gutunak

Sondeoak badatoz, inposizioari aurre egin!

AHT Gelditu! Elkarlanak berriro salatu nahi du Espainiako Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak tematuta jarraitzen dutela Abiadura Handiko Trena aurrera atera nahian. Bitartean, gezurra eta inposizioa. Gezurrak: esaten digutenean tren ekologiko eta jasangarria izango dela. Inposizioa: bost axola zaielako jendearen iritzia, eta gehiengo sozialari ez dietelako jaramonik egiten.

Tolosaldean ere ikusi ahal izan ditugu jarrera horren adibideak, eta gauzak horrela, hauxe da eskualdeko herri batzuen egoera:

Adunan oinarritzko proiektua ez da oraindik heldu udaltxera. Bi alternatibaren planoak bidali zuten duela urtebete, eta alegazioak jarri eta informazioa eskatu arren, ez dute inolako erantzunik jaso Jaurlaritzatik eta Sustapen Ministeriotik.

Zizurkilen, denera 17 sondeoe egin nahi dituzte. Oraindik Elkarlanarekin harremanetan ez zeuden lurjabeen lurretan egin dituzte. Alkatearengana galdetzeraz joan, eta alkateak ez omen zuen sondeoe horien berri.

Anoetan, 2003. urtetik batere berririk izan ez, eta ekainaren 12an Jaurlaritzako ordezkariak azaldu ziren sondeoen planoekin. Denera 16 sondeoe aurreikusten dira udalerriari. Lurjabeek jaso dute Jaurlaritzako ordezkariaren deia, datorren astean, hilaren 26an azaltzeko. Banan-banan deitu dituzte. Zergatik ez guztiak batera?

Hernialden ere hilaren 12an izan ziren Jaurlaritzako ordezkari-

riak udaletxean, sondeoen planoak eramateko. Bertan 9 sondeoren zuloak aurreikusten dira. Oraingoz ez dute baimenik jaso.

Alegian, dakigunez sondeoe bat egin dute Alegia eta Aldaba-Txiki tartetortan.

Tolosan, Jaurlaritzako ordezkariak maiatzean deitu zituzten lurjabeak. Tolosan ere banan-banan deitu zituzten. Bertan, ordea, batera azaldu ziren, banan-banako tratuari uko egin, eta benetako informazioa, gauzak zertan diren argi eta garbi esateko eskatuz. Gerroztik, lau bat aste pasatu dira, eta lehenengoan jarraitzen dute, hau da, informazio gabe eta indefentsio handiarekin. Lurjabeak berriz bildu, eta bilera bat eskatu zioten alkateari. Honek entzungor egin, eta ez du hitzordurik jarri.

Bitartean, lehenengo astean erakusketa propagandistikoan inaureratu zuten. Hori al da jendeak eskatzen duen informazioa? Ez ditugu betiko topikoak entzun behar! Informazioa baizik! Oraindik orain, sondeoeak non egin behar dituzten jakiteko planoak eskatu ditugu udaletxean, eta ez omen dute halakorik. Nola da posible lurjabe-sondeoeak egiteko baimena eskatzea joatea eta planorik ez erakustea? Gezurra eta manipulazioa!

AHTren obrak gelditzea eta eztabaida parte-hartzaile bati hasiera ematea exijitzen dugu, guztion artean erabaki ahal izateko zein gizarite eredu nahi dugun. Herritar guztiak animatzen ditugu helburu horiek lortzearen borrokara lotzeko, denon artean inposizioari aurre egiteko.

David Miangolarra. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanaren kidea.

Laburrak

Ostiralean pailazoan antzezlanaz 18:00etan

GAZTELU » Udalak eta Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako kultur ekintzak sustatuta Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren *Run Run* antzezlanaz egongo da ekainaren 27an, ostirala, 18:00etan Gazteluru pilotalekuan. Saioa euskaraz izango da.

'The soul of a man' filma etzi Leidorren

TOLOSA » Tolosalde blues O8 egitarauaren barnean Win Wednersen *The soul of a man* filma eskainiko dute Leidor zine aretoan ekainaren 26ean, etzi. Filma ikusteko bi ordutegi egongo dira: 19:15ean eta 21:45ean. Filman bluesaren munda ikus daiteke.

Hilberria

EUXEBI IZTUETA IGARZABAL

(Pruden Gabiriaren alarguna)

Atzo hil zen, 88 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere anima zuzendaria: Bittorio Zabalgoeaskoa; seme-alabak: Kontxita eta Joxemari Telleria, Miren eta Alberto Etxebarria, Arantza, Edurne; bilobak: Andoitz eta Aitziber, Aitzol eta Ana, Irati eta Axier, Ainhize eta Zigor, Leire eta Asier, Eñaut, Beñat eta Ana, Eneko, Libe eta Manex, Izar; birlobak: Malen; anai-arrebak: Gregori (†) eta Lorenzo (†), Erramun (†) eta Joxepa, Antonio (†), Dionixi eta Luis (†), Juanito (†), Miren eta Xegundo; ezkon senidea: Bittor; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otzitak bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Andre Mari Jasokundearen parroki elizan, gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Saroi etxea.

Oharra: gorpua Beasaingo Goierri beilatokian dago.



ZERAIN
2008ko ekainaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Bihar erabakiko da Leitza Nafarroako Herriarteko finalera pasatzen den

Pilota » Finalerdiko lehenengo itzulia joan den ostiralean jokatu zuten Uharteko Iruñaren aurka, eta bihar Uharteko ariko dira.

NAIARA GARZIA

Ostiral iluntzean Amazabal Pilota-lerkuan Herriarteko Txapelketaren finalerdietako lehenengo buelta jokatu zuten Leitzak Uharteko Iruñaren aurka. Bakoitzak bina partida irabazi zituen arren, tanteeoan Aurrera Pilota Eskolakoak 2 puntuz atzetik gelditu dira, 60 puntuekin. Bigarren itzulia bihar arratsaldean jokatu dute Uharteko.

«Gure ustez asteazkenean berdintsu ibiliko gara», dio Pakito Sagastibeltza pilota eskolakoak. «Gure ustez 2 partida irabazi eta beste 2 galduko ditugu. Itxaropen osoarekin goaz, tanteeoak izanen du garrantzi bizia, partida guztiak irabaztea ez baita erraza».

Ostiraleko partideti dagokionez, orokorrean denak «gustura» gelditu zirela dio Pakito Sagastibeltzak. «Pozik gelditu ginen, baina



Jon Jaunarena eta Aritz Sagastibeltza ostiralean, partida hasi baino lehen, Amazabalen. HITZA

partida hobeak jokatzeko badakigu».

Joan den urtean finala irabazi zuten, eta aurten, oraingoz finalerdietara iritsi dira. «Orain arte oso

ongi ibili gara. Zalantzak geneuzkan ia finalerdietan sartuko ginen edo ez eta hortxe gaude. Izugarria izanen litzateke berriro finalean sartzea».

Alebinetan Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Igartuak 18-3 irabazi zuten Uharteko aurka. Haur-kategoria Igartua eta Xabier Jaunarenak 11-18 galdu zuten. Jubenilei

dagokionez, Jon Jaunarenak eta Aritz Sagastibeltzak 22 eta 19 irabazi zuten, Aimar Lansalotek eta Mikel Iriartek 9 eta 22 galdu zuten, berriz. Alebinek eta jubenilek irabazi zuten, beraz.

Bina partida irabazi zituzten arren, txapelketa tanteeoan oinarritzen denez, Uharteko irabazi zuten, 62 tanto lortu baitzituzten. Leitzak, berriz, 60. Asteazkenean Uharteko bigarren buelta jokatu ondoren ikusiko da Leitzako finaleko sailkatzen den edo ez.

Lizarra eta Uharteko txapelketak

Igandean, berriz, Lizarra eta Uharteko Txapelketetako finalak jokatu ziren eta bai batean bai bestean Aurrera Pilota Eskolako zenbait pilotari aritu ziren.

Alebinetan, Sagastibeltza Lasartek eta Igartuak Espinal eta Mariezurrenaren aurka irabazi zuten, 18 eta 11, Lizarrako Txapelketako finalistak bihurtu zirelarik.

Partida amaitu ondoren 2 irabazleek Urrizelki, Pascual eta Beginorekin argazkiak atera zituzten.

Uharteko Txapelketari dagokionez, bigarren mailako infantiletan Sagastibeltza eta Onsalok 18 eta 7 irabazi zuten eta lehenengo mailako infantiletan Olanok eta Anduezak 18 eta 9. Aurrerako pilotari Uharteko txapelketako 2 txapela eskuratu zituzten.

Konpartsan eta tortilla lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik

Alegia » Bai batean bai bestean parte hartzeko epea uztailearen 4ean amaitzen da eta Kultur Etxera jo behar da.

ERREDAKZIOA

Uztailean konpartsa herrikoia eta jubilatuentzako patata tortilla lehiaketa egingo dituzte eta bai batean bai bestean parte hartzeko izena emateko epea uztailearen 4ean amaitzen da.

Konpartsa herrikoia uztailearen 16an egingo da, Karmen Egunez,

17:30etik aurrera. Herriartek osatutako konpartsa izango da eta helburu nagusia kalejiran festa giroan ibiltzea da, *Los Incansables* txarangaaren laguntzarekin. Tarteen poteorako eta afartzeko aukera ere izango da.

Lantzeko inauterietan egiten duten gisara aterako dira konpartsa kideak eta dantza egingo dute herriko hainbat tokitan. Dena den, dantza egitea ez da derrigorrezkoa; konpartsan parte hartzeko ongi pasatzeko gogoia izatea besterik ez da eskatzen.

Konpartsa herrikoian parte hartzeko izena emateko epea uztaile-

ren 4ean amaitzen da eta nahi duetanak herriko Kultur Etxean eman beharko du izena.

Patata tortilla lehiaketa

Jubilatuentzako patata tortilla lehiaketa, berriz, uztailearen 18an izango da, 18:30ean eta bertan parte hartzeko izena emateko Kultur Etxera jo behar da. Banaka edo binaka aurkeztu ahalgo dira parte-hartzaileak eta epaimahaiaren osaketa jai batzordeak erabakiko du. Parte-hartzaile edo bikote bakoitzak tortilla bat egingo du eta irabazleak saria izango du. Lehiaketa plazan egingo da.



Guardia Zibilaren jarrera salatuta

LEITZA » Joan den ostiralean ezker abertzaleak deituta elkarretaratzera egin zuten Lopeneko iturrian, «guardia zibilaren jarrera» salatzen asmoz, *jazarpen polizialik ez!* lelopean. Elkarretaratzera egingo zuten Guardia Zibilaren jarrera salatzen egindako bileran erabaki zuten. n.g.

BERRIA
CITROËN C4 SEDÁN ERANTSITAKO BALIOA.

Espazioan inbertitu.
15.150€^{tik}, ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI

Citroën gaman inbertitu ezazu:

Citroën C2 7.980€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C3 8.500€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën XSARA PICASSO 13.300€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C4 11.300€^{tik}
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa
Tel.: 943 65 18 42

CITROËN NO TE BARRIGAN LO QUE CITOËN PUEDA HACER POR TI



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

- **Anoeta.** Sanjoanak: herriko txistularien kalejira 11:00etan; ondoren udal dantzari eta txistulariak; 13:30ean herriko jubilatua eta pentsiadunen bazkaria eta dantzaldia Ikastolan.
- **Belauntza.** 11:00etan txuntxuneroak; 12:00etan meza nagusia; ondoren hamaiketako bertsoarietkin; 17:00etatik aurrera pilota partidak eta aharri jokua; ondoren kostilla jatea barrikotearrekin eta trikitilarietkin, jaietara emateko.
- **Tolosa.** Sanjoanak: 07:00etatik aurrera, alkate soina; 08:45ean eta 09:00etan diana, 09:00etan txirindulariak; 09:30ean, Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Musika Banda bilduko dira; 10:00etan, Meza Nagusia; 11:30ean, Iraunkorrrak txaranga kalez kale ariko da; 11:45ean, txirindulariak. 16:45ean bezperka Santa Marian eta arrats otoitzak Arramelen; ondoren aurrekua Zumardi Handian; 18:00etan zaldi-flamenco ikuskizuna; eta San Frantzisko pasealekuan Txirindulari Criterium-a; 20:00etatik aurrera Marmara Musik musika taldea; 23:00etan, su festak.

Erakusketa

- **Tolosa.** *Homofobia, Lebofobia eta Transfobiaren aurpegiak*, EHGAM taldearen erakusketa Leidor aretoan.

Deialdiak

- **Alegia.** Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailaren 3an. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.
- **Tolosa.** Ekainaren 28an, 16:30etik aurrera Spinning festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, egunean bertan, kmk.ikuskizunak@ikastola.net edo 688 658004 telefonoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Aurtengo denboraldiari agur

TOLOSA ● Joan den larunbatean Txolartek denboraldi amaierako festa egin zuen Alde Zaharrean daukan egoitzan. Festa 18:00etan hasi eta 20:00 baino lehen amaitu zuten. Txolarte Atzegi (Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea) elkartearren barruan daogon zerbitzu bat da, aisialdiko taldeak dira eta oro har 12 Txolarte daude Gipuzkoan. Talde honek asteburuetan 16 urtetik gorako adimen urriko

pertsonekin egiten du lan eta aisialdiko ekintzak egitea du helburu. Ekintza guzti hauek monitore boluntarioekin egiten dituzte. Txangoak egin, zinera, festeetara edo antzerkira joan... eta horrelako ekintzak egiten dituzte. Elkartetik azaldu dutenez, abuztuan oportetara joatekoak dira, 13 egun pasatuko dituzte kanpoan eta horretarako boluntarioak behar dituzte, baita urte osoan zehar ere asteburuetan lan egiteko. N. GARZIA

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

IKASTARO TRINKOAK

INGELESA - FRANTSESA
ALEMANA - ITALIERA
TXINERA

elduainen
hizkuntza-irratia



(Sn.Sn. Ondarreta)

UDARA
UZTAILA-ABUZTUA
Egunero ordubate, bi edo hiru ordukoak
MATRIKULA IREKITA DAGO

DONOSTIA: Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta - Tel/Fax: 943 31 07 53 - 943 31 37 90 - **INTXAURRONDO:** Pedro Axular 4, Behea - Tel/Fax: 943 27 24 63 - **TOLOSA:** Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 / Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 - **LASARTE:** Pablo Mutiozabal 2, 1. solairua - Tel/Fax: 943 37 27 81 - **URNIETA:** Dendaldegia, 6 Behea - Tel/Fax: 943 55 58 58 - **VILLABONA:** Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax: 943 69 63 73 - **ALEGIA:** San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26